

[Nere buruari arrika]

Zirt-edo-zart

Eginlariya - Mañaxi; amalau urteko ikaslariya; azpitik txardin saltzalle bezela jantzia, eta gañetik ikastecheko sonekoa, txukuna baña *ez oso apaña*.

Irudigela - Langille-echeke gela, egoki ta txukun, baño geyegirik gabe. Maya erdiyan, alki batzuek eta ispillu bat nai dan tokiyan.

Gertaera Donostiyan.

Eskolastika - (*Galtzarbean ekarriko ditu ikastetxetik berez etxera ekarri oi dituzten bezela, zorroa liburuakin, egalun edo bordaketarako zur edo bastidorea, eta eskuan illeroko on-gaitzen nota edo sari-papera. Oso asarre asiko da ara ta onera...*)

Orain itzegin bear det, bai orixe beintzat, mingaña bidean naikoa busti zait eta egi mardulak agiri-agiriyan jarri bear ditut eta oso garbiro gañera. Emen Jainkoak bakarrik entzuten dit, eta barren-barrengo miñak atera bear ditut. Ez dakit bidean isillik nola etorri naizen. Nori esanik ez det or arkitu eta eskerrak, bestela gaur trapuzar guztiak argitaratuko ziran. Baño emen nere etxean nago, eta nere etxean nik agintzen det. ¿Zer (*tresna guztiak mai gañean uzten ditu*) uste ote dute? Nere bizkar far egitea...? Ez gaurkoan beintzat... (*Nota erakutsiyaz*) Au da guztiya, auxe, nik ille bete ortan egin ditudan on eta txarkeri guztiyak emen daude errenkaran; eta ori ikastetxeko buru eta nere lagun guztien aurrean irakurri (zañetako odol guztiyak irak egiten, onek jartzen dizkit) Lotsarik aundiena guztien aurrean eraman eta sari aundi bat balitz bezela, paper zirzillau artu ta, amari erakustera echera (parentesis, aquí)

Urte guztiyan tajuzko *nota* batzuen atzetik ibilli naiz; ikastetxeko nere egite ta ikaste guztiyak itz eder batekin izendatu nai ba. *Sobresaliente*, orra *sobresaliente!*; orixe nai bai, buruz gain ta azpi; baño alparrik, alperrik, eta alperrik berriz esan da ere. Alperrik ibiltzekotan berriz, geyago ez noa ni mugitzera eta exeri egingo naiz. Zertako nekatu? Galestiya da gaur izardia nola nai ixurtzeko.

Gaur bildu dira ikastetxeko zaindari eta buruak, gu ere bai ayekin. Gorputz guztiya txingurrituta an egon gera, gaizkille batzuk bezela epai edo sententziyaren zai an: -Rita Lerchundi - *Oso ongi* eta guztiyak txalo jotzen diote, -Pepita Bastida, *Oso ongi* da- eta txaloak ari ere - Cristina Iraola- *Oso ongi* dagola- eta jakiña txaloak bestiai bezela. Iritxi da nere aldiya. Eskolastika Elizalde - Zu erdipurdi zaude - txalo bat ez, lotsa bai galanta; burua makur makur egin, paper au artu eta amari erakustera. Bai amari erakustea (altxata), alaxe uste diñat. Aspaldi oñez ikasia naiz gauz oyetarako. Ez al dit berak entzungo (atetik begiratuko du) Amari ez diyot au erakutsiko, eta ez ta urrengorik ere.- Burua kiskaltzen didan papera auts egingo det eta kito (asarre biziyan apurtzen du).

Illa joan ta illa etorri ta orla ni beti ibilli beaz? batzuen parragarri ta bestien lotsagarri? Ez oixe beñepein... Ez nago orretarako; zer uste ote dute? Nere amaren alaba ez dago iñoren parragarri izateko; eta nere

bizkar ez du iñork geigo parrik egingo. Ikastetxerako ez banaiz, besterik ez bada txardin saltzeko aldin izango naiz.

Bai enetxoa, artan ere jakin egin bearra. Seda ta lumentz apaindutako zapel edo sombrero politak ibiltzeko buru egoki asko arkituko dira; baño ez txardiñaz betetako saskia arin ibiltzeko. Ortarako lepezamarra sendoa eta ankazañak ermoak bear dira; eta Jainkoak emanda oyek baditut beintzat.

Amaika lotsakizun nik eraman det, nik merezi baño askoz geyago; gaurtik asko det. Ez det ikusi ere nai geyago ez iburu eta ez beste tresnarik. (*Burundara aundiyan zorrotik liburuak atera ta botatzen ditu, baita bastidore ta beste tresnak ere. Gela guztiya nastu, eta oso asarre alde egingo du esanaz:*) Or kompon; Bretxara eraman da amak saldu ditzake nai badu; bestela Zurriolan bera bota ditzake. (*Al dezaken azkarrena agertu bear du txardin saltzalle egiñik, saskia buruan duala, oso alai*)

Zerbait bai al naiz? Bai noski. Datozela, datozela orain, len neri par egiten ziraten oyek eta ekusi dezatela emen Eskolastika, eta Eskolastikaren saleroa (*arin ta tente gira-bira batzuek egingo ditu*) iya orain zein geran geyena. Emen nere ondoan jarri nai nituzke nere lagunak... Utikan; saskian dedan txardin bat geyago da ta... (*Oyuka*); Bokarta, bokarta! (*Itzegiten*) Laister Donosti guztiya nere atzetikan det. (*Oyuka*); txardin aundi ederra, txardiña! (*Itzegiten*) Leyo guztiak batbatera irikitzen dira, eta alde guztietatik galdezka ditut. -¿Zer dezu gaztetxoa? -¿Zer dedan? Itsaso guztiya buruaren tontorrian, etorri etofri; jetxi etxekoandre ea ekusi, ekusi ezkeru saldua daukat eta. (*Oyuka*) Aukera, aukera! Bisigua ta legatza!; txipiroyak eta langosta! Bokarta ta orlako nork dauka? Txardiña, urdiñ-urdiña! (*Izketan*) Irurogei urteko atso buru zuri bat arpegian aña zimur poltsan dituela or det galdezka -¿Zenbatian? -¿Zenbatian etxekoandre? Gaurkoan debalde; asko det propina ta artu nai dun aña. -Aurreko itzaldi ontan, tarteka tarteka, iñor oartu gabe bastarrera begira, arpegian zerbaitekin arrasto beltz batzuek egingo ditu - eta une ontara iristean Ispillura begira gelditzen da, esanaz: ¡¡Aaaaa...!! (*Burutik saskia erortzen zayo*) ¡¡Eneee!!... ¿Ze ekusten det nik?... Ni ez naiz ni izango. Ni ez naiz ordia ni izango? Ama Korukua ba au itxura jarri zait. Txardiñen gesal eta txipiroyen axote edo tintak ondatu naute ni ta nere soñekoa. Ez daude oraintxe nere lagunak neri begira, Ene; oek arrai zikiñak. Edozeñek esango luke itsasoan jayota aziak dirala. Ez nuen esango uretan orren gauza zikiñik izaten zanik; ikatza jan dutela dirudi.

Tokitara joan dira nere panparroikeri saleroak... Utikan (*Saskiyan ostikoz botatzen du*) orlako zikinkeririk buruan ez det ibilli nai.

Eguzkiya bera ekusiko zan nere buru orrazetu berriyan ta orain txukunak gelditu zaizkit. Auxe da, ba nere buruari arrika ematea, zerbait egin nualakotan, oso panparroi nitzan... Orra, nere arrokeria zapaldu Jainkoak beetu orain. Au edo ori edo zer edo zer egin bear ko det bada... (Isilluna)... ta. Orain zer egin bear det? Nere burua orren betua ekustea lotsatzekoa da biziro. Atzo apaiñ-apaiñ kolegioan ta gaur, mantal ertzak gerriyan bilduta, oiñ utsetan, txardiñen koipea lepo-txokoan bera dedala, kale zar oyetan oyuka. Txantxetako gora bera da alajañetan. Eta ori guztia zergatik? Ori guztia ikastetxean besteak aña ez naizelako. Au oraindik lotsagarrigoa da berriz. (Igartzen diyot lan igesi nabillena, eta ainbeste argoriokin nere burua atzipetu edo engañatu besterik ez det egiten. Auxe da bada zer egin ezin asmatu). Ikastetxeak lotu egiten nau ta bekozkoa jartzen dit. Txardin saltzea berriz lotza deizkiot... ¿Zer egin bear den bada Eskolastika? ¿Zer egin bear den? (Parentesis anterior aquí) ¡Zas!... Auxe da bada!... ¿Zertara jo baneki!... Zirt edo zart bada...! Zerura begira geldituko da, gero oso erako) Gaur zer, ¿ni zer nabil? Nik ez al dezaket beste askok dezaketena? ¿Nere lagunak aña kemen ez al det ba nik ayen neurriak ez betetzeko? Ayek beren ikaste eta egin bearretan ongi dijoazela ta, nik ayei ez badiet jarraitzen, zeñen gain joango da? Eta zeñek galduko du? Jakina; nere gain joango litzateke noski.

Bada ez da joango, nik diyot orain eta ez da joango nik nai ez det eta. Zeba? ¿nik edozeni opoz-opo jarraitzeko indar ezik al daukat ba? Laister ikusiko da Eskolastika zein dan.

(Saskia artuta alde egiten du eta oso azkar agertzen da aurrena zuan soñekoakin. Ispilluan begiratzen, illeak zuzenduaz asten da...) Oraintxen naiz lengoa. Gaizki esan det lengoa ez, lengoan aurrekoa. Lengoan txardin saltzalle zikin bat nintzan. Eta nere arpegia geyago koipe beltz oyekin ez det zikindu nai. Nere seta egiteagatik Jainkoak emandako edertasuna bera iya galdu nuen. (Lurre tresnak bilduaz) Goxoa ibilli naiz alajañetan. Nik gaizki egin ta ni asarretu. Gaizki egiñak emen daude eta, oek erraz bilduko ditut; gaizki *esanak* non ote dira? Ezin bildu zabaldu ziran ta, Jainkoak ez daizkidala goguan artu. Nere izar maitea (musu emango diyoy) zurekin lan egin bear det. Nere liburu politak!; ikasi baño len apurtu zaituztet. Buru alperrak zuen orriyetan ez du ikasiko ez Salomonen jakindea. Baño ni, ni banaiz beintzat, buru au urratu bear det eta atera bear dizutet azken-azkeneko onentasun edo zumua. Asi bear det benetan, oso benetan. Nere egitekoak zer diran badakit. Beste nere lagunai agintzen zayena

agintzen zait neri ere, eta gazte batek batere zuzena izango bada beintzat, nai ta naiez egin bear duana gogoratu ditzadan orain une batian (1) Lenengo Jainkotia; bigarren gizapide edo conducta onekua; irugarren ikaskorra edo ikasi zalea; laugarren langillea, eta azkenik txukuna. Oyek dira ikastetxean agintzen zaizkigunak. An eta etxean, mendian eta kalean, gaur ta biyar eta beti egiteko; Cristau onaren izena galdu nai ez badegu beintzat,... (1) Jainkotiya lenengo. Jakiña ba. Jainkozko gauzetan bero ez badabil, laister naiz aldapak bera betikotasuna, anima, zerua eta erligioko gauzak uzten baditut, laister zabartu ta lasatuko naiz beste gauzetan ere. Elizkoya ez banaiz, plazazale naita nai ez. Bigarren gizapide edo conducta ona gorde dezagula. Izen ona egite edo obra onak dakarte; egite onak oitura onak, garbiak, auzoko mingain luziai zer esanik jarri gabe. Ori egiteak, neretzat du onik oberena.- Irugarren gauza egin bearrekoa bada onen ikas-zale. Idazti, irakurgai, liburu onak eskuetan bear dira ibilli maiz [gaurita] jakintsu izateko, ez lasaikerizko kondairak, ipui lizunak, irudi lotsagarriyetan denbora irakurri ikasbide okerrak dira oyek. Laugarren egitekoa, esku lanetan bizkor, ernai, eta ugari; josten adabaketan, komponketan, galtzerdiegiñean, ardatzian, garbiketean, surteko lanetan... ez pianoa jotzen bakarrik.

Azkenik eskatzen zakuna da txukuntasuna. Soñekoa maiz adabakiz betea, baño garbia izan bedi; txukuna, neurrikoa, eskalki osoa ez erdi estaltzia, lepo-lepotik beberanokoa. Oñetakoak egokiak, zelayak, oñarri onekoak, ez basurde baten muturra dirudien takoyakin. Arpegia goizeko intzak garbitutako marrobiyak bezela, ispillu bat egiñik; ez koipez, lerdez eta autsez zikindua, eztare pipar autsez españak gorrituta, edo matrallak almidoyaz margoztuta. Ez, ez; gauzak txukun, baño sollak, berezkoak. Jainkoa egin da bezela... Au odo bidez agintzen zazu. Asko beren arpegiz aspertuta bizi dira, eta beste batekin trukatzegatik, berriz jayotzea jarriko lirake noski - Jesús, bai ondo txoratu dala gaurko mundua. *Si es mora tora, si no es mora nara...*

Orra zer gauza ederrak gure ikastetxean agintzen zaizkigu; eta ez dakit zer aizek jo nauten ni, oyek utzita maldak bera or asteko. Jainkoari eskerrak ordu onean oartu ta zentzutu naiz. Isil-isillik eta pozik gañera, lanari ekin bear diot, eta gogoratu ditudan gauzak arreta aundiyan betetzea nere lana. Eta nola nai aztu ez daizkidan, eta besten batek gorde nai baditu ere, labur labur itz neurtu batian jarriko ditut:

Izan nai badezute

aundiak benetan
maitatu Jaungoikoa
bero biyotzetan;
garbiya gorde izena (fama)
zuen oituretan
susmorik jarri gabe
besten mingañetan.

Paper, dantza, teatro,
cine lizunetan
ez beñere demborik
ez galdu alperrikan.
Egunaz egin lana
lo berriz gauetan
ez or ontzak bezela
ibilli illunpetan.

Garbi, txukunak izan
jantzi guztietan,
tajuz gorputzak eta
garbi biyotzetan.
Au egiten dutenak
dira egiyetan
aundiyak Jainkoaren
begi-begiyetan
zeru-lurren aurrean
bai alajañetan

Garagarrillaren 24^{an}. 1920^{an}

A.A.